

HARTZAK

Istoria: RUTH KRAUSS

Ilustrazioak: MAURICE SENDAK

Itzulpena: MANU LÓPEZ GASENI

Cartone delakoan koadernatua. 22,5 x 19 cm. 32 or. 13 €.

-100 TÍTULOS PARA LEER Y COMPARTIR (New Yorkeko Biblioteka Publikoa)

-SCHOOL LIBRARY JOURNAL BEST BOOK

Hartzak (euskaraz)

ISBN 978-84-7681-859-6. Kalandraka-Pamiela.

Osos (gaztelaniaz)

ISBN 978-84-8464-894-9. Libros para soñar.

Osos (galegoz)

ISBN 978-84-8464-895-6. Tras os montes.

Ossets (katalanez)

ISBN 978-84-8464-896-3. Kalandraka.

Ursos (portugesez)

ISBN 978-989-749-033-0. Livros para sonhar.

Jatorriz 1948an Phyllis Rowand-en irudiez argitaratua, Ruth Krauss-ek hitz gutxiko eta onomatopeiaz betetako istorio labur dibertigarria sortu zuen. Istorio hori 2005ean berrargitaratu zen Maurice Sendak-en ilustrazioekin: oraingoan hartzak animalia saltokari-saldo bat bihurtu ziren, “Piztiak bizi diren lekuan” obrako Max-en antzera otso-larraz mozorratutako haur batekin batera komedia ezin bizkorrago bat antzestu zutenak.

Sendak-en beste obretan bezala, lotara joateko orduan hasten da dena: bekaitzaldi batean, txakur batek peluxe-zko hartza kentzen dio haur bati. Ihesi doala, hartz ikaragarrien talde bat abiatzen da lapurraren bila, toki eta egoera atipiko harrigarrietan, ustekabeko amaiera batera iritsi arte. Itzulpenak jatorrizko testuaren egitura errimatu gordetzen du.

1950 eta 1960ko urteetan, Ruth Krauss-ek eta Maurice Sendak-ek album ilustratuaren generoa eraberritu zuten, “A hole is to dig” edo “A very special house” tituluekin, besteak beste.

Ruth Krauss oso idazle ezaguna zen, liburu labur, samur eta gatzdunak idazten zituenak. Hitz-joko sinple bat kausa-ondoriozko ikerketa filosofikoa bihurtu zezakeen, orekari eusteko inolako arazorik gabe. *Nonsense* delakoaren artista, haren obrek, melengak izan gabe, ahotsa ematen zioten haur-irakurleariari. Bien artean, sortzaile tandem emankorra osatu zuten, marra azkarreko eta ur-margo adierazkorren istorioak sortu zituztelarik. Literaturaren eta artearen aldetik elkar inspiratu eta heldu zuten: arte iraultzailearekin gertatzen den bezala, haiek liburuak freskotasun osoa gordez iritsi dira gaur egunera.



■ **Gaia:** jolasa.

■ **Gomendatutako adina:** 3 urtetik aurrera.

■ **Alderdi azpimarragarriak:** onomatopeiak, testu errimatuak; umorea, *nonsense*; “Piztiak bizi diren lekuan” delakoari omenaldia; “Piztiak bizi diren lekuan” eta “Gaueko sukaldean” obren egile berarena.

Ruth Krauss


(Maryland, Baltimore, 1901 - Connecticut, 1993)

Parson diseinu-eskolan graduatua. 1940ko urteetan New Yorkeko Bank Street College of Education delakoko Idazleen Laborategiko kidea izan zen. Haurrentzako 30 obra baino gehiago idatzi zituen, haietarik asko Crockett Johnson haren senarrak ilustratuak. Krauss-en zortzi idazlan Maurice Sendak-ek ilustratu zituen.

Maurice Sendak

(Brooklyn, Nueva York, 1928 - Connecticut, 2012)

Haurrentzako 90 liburu baino gehiago argitaratu zituen 1951z geroztik, eta ibilbide oparo horregatik 1970ean Andersen Saria eta 1983an Laura Ingalls Wilder Saria jaso zituen. Estatu Batuetako gobernuak Arteen Domina Nazionala eman zion 1996an, eta 2003an Astrid Lindgren Nazioarteko Saria eman zioten Christine Nöstlinger egile austriarrarekin batera. Margolaritza eta marrazkigintza ikasi zituen Art Students League of New York delakoan. All America Comics delakoan lortu zuen bere lehen lana ilustratzaile gisa, eta 1951n Harper and Brothers argitaletxearentzat lan egiten hasi zen ilustratzaile gisa. Literaturaren alorrean benetako iraultza eragin zuen bere liburuetako forma, eduki eta ideientzaz. Bereizitako kritikaren aburuz “Estatu Batuetako gizon eraginkorrenetako bat izan zen, milioika umeren fantasiak irudikatzea erantzukizun ikaragarria dela kontua hartuta”.



www.kalandraka.com

comunicacion@kalandraka.com

www.

Pamiela
etxea
soltxate@pamiela.com